

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak CA Osasunarentzako diru-laguntza aldi baterako erretiratu du

Aurrekontuaren barnean zeuden 1,4 milioi euroak politika sozialetan eta mendekotasuneko politiketan erabiliko ditu, baina klubari laguntza publikoa emateko beste aukeraren bat aztertzea eskaintzen du

Lunes, 23 de julio de 2012

Gizarte Politiken kontseilari Jesús Pejenaute eta Club Atlético Osasunako lehendakari berri Miguel Archanco lehen bilera formalia izan dute gaur biek ala biek beren kargua hartu zutenetik. Lan-saio horretan Nafarroako Gobernuak Osasunako lehendakariari helarazi dio 2012 honetan, aurrekontu publikoaren doikuntzaren egoerak direla eta, ez zaiola Osasunari aurreikusita zegoen 1,4 milioi euroko diru-laguntza emango. Kopuru hori Foru Komunitateari dagozkion politika sozialak eta mendekotasuneko politikak finantzatzeko erabiliko da.

Pejenaute kontseilariak Miguel Archancori helarazi dio aldi baterako neurri bat dela eta izan daitekeen egoera ekonomikoaren arabera, datozen ekitaldietan, futbol-taldearen zuzeneko finantzaketari berriz hel diezaioketela; aipatu dio, ordea, Gobernuak prest dagoela diru-laguntza ez den laguntza publikoaren beste aukeraren bat Osasunarekin batera aztertzeko.

Gizarte Politiken kontseilariak bere "atsekabea" agertu du era honetako neurri bat iragarri izanagatik, jakin badakielako Osasunak Nafarroako gizarte osoaren laguntza soziala duela eta Nafarroako kirolarentzat erreferentziazko kluba dela, baina adierazi du Nafarroako Gobernuak gastua lehenetsi behar duela kontu publikoei eutsi eta doitzeko testuinguru batean; beraz, hartutako erabakia uler dezatela eskatu die kirolzaleei oro har eta Osasunako bazkide nahiz zaleei bereziki.